

danbolin

2023 maiatea

249 zk.

herri bat
hamaika
aizki



Irao berri
pottokak

675 965 116 iraopottoka@gmail.com

640 917 626

Goxuri

k
kutxabank

Portale Kalea 7, 20740 Zestoa
tel. 943 147 088

txoko taberna
erdikalea 3
tel. 943 147 196

OGI BERRI
tel. 943 536 314

Ordutegia:
Astelehenetik ostiralera
07:30-13:30, 16:30-21:00
Larunbat eta igandetan
07:30-14:30, 17:00-21:00

oller
gi
943 147 657

MGS
Mutua General de Seguros

Zestoa
AUTOESKOLA

MB merendero BELLOETXE

943 147 344 Iraeta - Zestoa

	UZTAILA	ABUZTUA	IRAILA
1	2	3	4
5	6	7	8
9	10	11	12
13	14	15	16
17	18	19	20
21	22	23	24
25	26	27	28
29	30	31	

	URRIA	AZAROA	ABENDUA
1	2	3	4
5	6	7	8
9	10	11	12
13	14	15	16
17	18	19	20
21	22	23	24
25	26	27	28
29	30	31	

JAVIER ALBERDI
Aseguru agente eksklusiboa

Gesalaga, 18 behea · 20740 Zestoa
T/ 943 89 71 01 · jalberdi@mgs.es

Gesalaga 1 | Tel. 943 148 524
20740 Zestoa Gipuzkoa | zestoa_autoeskola@hotmail.com

UZTAPIDE
TABERNA

Erdikalea 5
Telf: 943 14 73 22
20740 Zestoa (Gipuzkoa)

AVA ASESORIA ARIN

ABOKATUA GESTORIA
KONTABILITATEAK ZERGAK
INMOBILIARIA GESTIOA LABORALA
KOMUNITATE ADMINISTRAZIOA ASEGURUAK

IRAETA JATETXEA
Olaizola eta Uria kalea – Iraeta
943 147 067

Gestoria Zubia
M^a Jesus Zubia Olaizola
Portale kalea 7, behea - 20740 ZESTOA
Tel./FAX: 943 897 070

HARATEGIA
LOPENE
tel. 943 147 848 - 607 186 006

CARAVAN PARK

GARRAIO SISTEMAK
ERREMOLKEEN SALMENTA
ERREMOLKEETARAKO OSAGARRIAK
KARABANA, AUTOKARABANA eta FURGONETETARAKO OSAGARRIAK
KONPONKETA eta MANTENTZE LANAK

telf. 943 147 679
www.caravan-park.net
info@caravan-park.net

Oiranzub
taberna

lariak
Lurraren onena
Zestoaren bihotzean.

lariak
ZESTOA
www.lariakdenda.com
tfnor: 943148134

Aranburu
Landetxea eta jatetxea
943 148 005

TXOKO TXIKI
Okindegia eta taberna
943 052 761

FATI
taberna
ZESTOA
Kale Okerra 3
Tel. 943 14 72 69

Itzulpen eta argitalpen zerbitzuak, s.l. | Itzulpenak baino askoz gehiago!

Bakun
Narkis Balentziaga, 2 | T +34 943 148 306 | bakun@bakun.eus
20749 Arroa (Gipuzkoa) | F +34 943 897 380 | www.bakun.eus

UROLA
ITURGINTZA
665 49 07 73

KOIOTE
foru plaza, 4
tel. 943 147 095

Araneta
ERRETEGIA
626 869 231 / 943 148 092
erreserbak@aranetaerretegia.com

HAMAIIKA HAUTU

Batzuentzat mundua gelditzen da hauteskunde boladan, gobernu aldaketak administrazioak paralizatzen dituelako nolabait. Besteentzat, berriz, azkartu egiten da, hauteskundeak prestakuntzen murgilduta daudelako buru belarri. Badira eguneroko erritmoan jarraitzen dutenak; norberari ezertan eragiten ez diola uste dutenak. Eta badaude batzuk kontzienteki geldialdi bat hartzea erabakitzen dutenak. Azken lau urteei buruz hausnartu eta erabakia hartzen dutenak.

Botoa ematera joan edo ez; botoa alde bati eman, edo besteari, edo zurian. Egongo dira beste hainbeste klasetakoak ere. Guztiak hautuak dira. Kontzienteak ala ez, baina hautuak.

18 urterekin eman dezakegu botoa lehen aldiz. Milaka zalantza: "Joango naiz, edo ez? Politika inporta zait? Ez? Hark esaten duen horrek konbentzitzen al nau? Edo gezurra besterik ez da?" Urteekin pentsatzen dugu hautua egiteko ahalmen gehiago dugula. Informazio eta ezagutza gehiago dugula. Eta ondorioz, hautu hobeia egingo dugula. Baina agian informazio masa guzti honen artean nahastu besterik ez gara egin.

Bakoitzak bere informazio iturriak bilatzen ditu: hedabideak, sare sozialak, herri programak, ekitaldiak, norberaren esperientzia, etxean jasotakoa edota lagunartean hitz egindakoa. Denak dauka bakoitzaren hautuan eragina, eta denak dira beharrezkoak.

Hautu hori, ordea, ez da egun bakarrean eraikitzen. "Zer gosalduko dut? Tostada olioarekin ala marmeladarekin?" Ez da galdera hori erantzutea bezain erraza. Hauteskundeak ez diren urteetan ere hautu txikiak egiten ditugu arduratzen gaituzten gaien lehentasunak markatzen: kontu ezberdinetan parte hartzen edo ez, ekintza ezberdinetara joaten edo ez. Iritzia ematen dugu, alde batera edo bestera.

11 dira hausnartzeko moduak. 11 dira hauteskundeak bizitzeko moduak. 11 dira hautuak. Eta 11 izango dira Zestoako hauteskundeetan hautatuak. 11 aulki jokoan. 11 herritar.

Ea hautu hori egiten lagunduko dizun zerbait aurkitzen duzun ale honetan.

gara matxutani



DANBOLINEK EZ DU BERE GAIN HARTZEN ALDIZKARIAN ADIERAZITAKO ESANEN ETA IRITZIEN ERANTZUKIZUNA

Argitarabazaita: DANBOLIN ZULO ELKARTEA. KULTUR EGEEA. AXUN ARRAZOLA PLAZA 1, 20740 ZESTOAA (GIPUZKOA)

722 609 265 INFO@DANBOLIN.EUS

Danbolin: NAIARA EXPOSITO, AMAIUR ARISCI, URKO CANSECO, SARA MATSUTANI, NAIARA OLAIZOLA, ITSASO ZUBIRIA, JONE BERGARA ETA ICSASO WALIÑO

Kolaborabazaita/azentuzaita baldia:

NAGORE TELLERIA, JON ARGANO, FERNANDO ARZALLUS, ONINTZA IRUREGA, MIREIA ORBEGOZO, NEREA ODRIOZOLA, ICSASO ZUBIRIA, JANIRE DIAZ, ETA MAIALEN KORTADI

Disainua eta makelabazaita:

ENEKO ARISCI

Inprimabegia: GERTU (OÑATI).

Lege gordailua: SS-1108/2000

ISSN: 1576-9429



ZESTOATIK ROSARIORA

Argentinara iritsi nintzenean, ez nuen uste Zestoako kontuekin pentsatu beharko nuenik, baina tira... Egia da ama malkoa begitik kendu ezinda zegoela joan nintzenean, baina dagoeneko ni etxetik kanpo egotea ez dela hain gogorra ohartu dela iruditzen zait.

Jada ia hiru hilabete pasa dira etorri nintzenetik, otsaila bukaeran etorri bainintzen. Nire asmoa egonaldia ahalik eta gehien luzatzea da, hasiera batean urte osorako etorri behar nintzelako, eta azkenean, urte erdira moztu zelako esperientzia, unibertsitateko kontuak zirela medio. Hala ere, denbora ondo aprobetxatzen ari naizela uste dut, hilabetean behin gutxienez bidaia bat egiteko asmoa-dugu eta, jai egunak erabiliz. Gainera diruaren balioaren aldaketaren ondorioz, kanpotik gatozenontzat orokorrean hemengo bizitza ez da garestia. Bertakoei dagokionez ordea, hunkigarria da egunerokotasunean bizi behar duten egoera eta dirua kudeatzeko duten gaitasuna.



Dena dela, Argentina guztia ezagutzeko denbora gabe gelditzen naiz, leku zoragarri asko dituelako eta astelehenetik ostiralera derrigorrezko praktikak ditudalako. Asteko lehen lau egunetan goizez joaten naiz ospitale batera, bi egunetan disfuntzio fisikoak dituzten jendearekin egiten dugu lan eta beste bietan komunitateko proiektu batean dihardugu. Ostiral goizetan berriz, osasun mentaleko klinika batera joaten naiz, hainbat gaixotasun eta trastorno dituzten pertsonekin lan egitera.

Orain arte ikusi duguna kontuan izanik, harri-garriak iruditu zaizkit bai inguruak eta baita bertako gastronomia ere. Batez ere bertako haragia da aipagarriena, gozokiekin eta enpanadekin ahaztu gabe. Gainera, oro har jendea oso adeitsua da eta beti laguntzeko prest dago, berehala konturatzen dira eta ez naizela bertakoa. Nolanahi ere, ez dut ukatuko ni bizi naizen hiria arriskutsu samarra dela eta kontu handiz ibili behar naizela une oro.

Azkenaldian jende eta leku berriak ezagutzen ari den beste pertsona bat ere ezagutzen dut, Miren Nogales. Berari pasako nioke enbidoa, izan ere, "Herri Txiki, Infernu Handi"-ko aurkezle lanetan ari da, Pagadirekin batera. Zer nolako esperientzia ari da izaten?

Gustuko duzu lana? Antza denez, lanera joatea ez da ari izaten oso neketsua!

jare eizagirre erkizia

pintada. **Haurren danborrada.** Santakutzak pasa berri diren honetan, eskerrak ematea besterik ez zaigu geratzen buru-belarri haurren danborrada antolatze lanean aritu garen guraso taldeari. Eskerrik asko danborradan parte hartu zuten haur guztiei, beraiek gabe hau ez zelako posible izango. Eskerrik asko Karlos Alkortari, gure proposamenari baietz esan, eta Cristina Sanchezen lanari esker, banderadunen taldea hain dotore eta txukun janzten laguntzeagatik. Eskerrik asko Zestoako eskolari, entseguetan eta gelan dena ematen aritu direlako: danborrak jotzen erakusten eta txikienei Ipintza abestia erakusten. Eskerrik asko danborradan laguntzera etorri ziren guraso guztiei. Eskerrik asko ezkutuan lanean aritu diren jostunei. Eskerrik asko Amaiur Aristiri, prozesu guztian bidelagun izateagatik. Eta eskerrik asko Zestoari, egungo errealitate-ra egokitutako danborrada lortu dugulako; haurrak festaren parte aktiboki izatea eta genero bereizketarik gabeko danborrada lortzea zirelako helburuak, eta lortu dugulako. GORA SANTAKUTZAK!

haurren danborradako antolatzaileak

NIK BAIEZKOA.

Apirileko azken egunak dira eta urtero bezala bertara etorri naiz. Berak erakutsi eta ekarri gintuen lekura. Berak maitatzen erakutsi zigun lekura. Hainbeste momentu bizi eta gozatu ditugun lekura, eta azkenik bera ere gelditu zen lekura.

Hamabost urte dira urtero egun honetan bertara gerturatzen naizela, batzuetan lagunekin beste askotan bakarrik.

Gaurkoan bakarrik nago, baina ez du asko iraun bakar-dade honek.

Gaurkoan mendiak hitz egin dit, euri ondoren behetik gora datozen lainoek hitz egin didate. Gaurkoan ukitu ez dudana eta hainbeste gris tonu desberdin dituen kare-haitzak hitz egin dit. Berak hitz egin dit.

Bizitzaz, bizitza honetaz, honetaz hain zuzen ere, hitz egin didak, hitz egin diagu.

Bizitza hauxe, hauxe hain zuzen ere, baita bizi behar duguna, despistatuta ahalik eta denbora gutxien pasata. Beste gauza asko bezala, hauxe ere bukatzen baita. Badirudi bizitza delako hau, oso hitz potoloa dela, baina ez dut uste. Askoz ere xingleagoa dela esango nuke, eguneroko gauza xingleenak direla bizitza esango nuke. Gauza, ekintza, egoera, leku eta batez ere harreman xingleenak.

Halako etorkizuneko proiektu eder, handi eta faltsu bati begira gabiltza, behar baino denbora gehiago, despistatuta gabiltza, benetakoa den hori galduaz.

Urrunean irudikatu eta amesten dugun horren zain gaude, bizitza, etorriko den hori delakoan, zain... despistatuta... konturatu gabe zain gauden denbora guzti hori dela bizitza, galtzen ari garen horixe, hauxe bera. Maite dugun jende asko joan da eta joango da, joango gara. Beste asko sufritzen ari da eta ariko da, ariko gara.

Horregatik balio du baiezkook, asko pentsatu gabeko baiezkook.

Tragoa hartuko al diagu??... Bai noski.

Afari mokadutxoa egingo al diagu??... Bai, bihar bertan, zergatik ez??

Mendi bueltatxoa bai??...(kristoren perezarekin) Bai, ni apuntatzen nauk.

Hurrengoan ea gelditzen garen... Bai, ostiralean bertan??

Aspaldiko lagun batekin gogoratzen garela?... Ba deitu, oraintxe, bizitza honetan, hain zuzen ere honetantxe. Alegia... ba horixe...

Nik baiezkoa.

Nik aldeko botoa.

Guzti hau ere berak erakutsi zigun... esan gabe doa...



ZESTOA HERRI TXIKI HONEK Santakutzetako ajea

(benetako ajea eta emozionala) guztiz pasa gabe nagoela ari naiz lerro hauek idazten. Azken asteotan, nire inguruan monotema bat besterik ez da egon: haurren danborrada. Etxekoak ere nazkatu ditut gaiarekin. Izan ere, hilabeteetan aritu gara lanean eta ni horrelakoa naiz, (nire gertukoek ondotoxo daktite) zerbait hartzen badut begi artean...

Herrigintzan aritzea ordaindu gabeko lana dela badakigu, lan boluntarioa, eta horretan aritzen garenok edo aritu izan garenok, gustura egiten dugun lana da. Sarri soldatapeko gure lanek adina ordu kentzen dizkigute, eta ziurrenik, baita behin baino gehiagotan logura kendu ere. Baina gustura egiten den lana da. Hala ere, onartu behar dut kritikak ez ditudala hain ondo eramaten. Erraza baita besteek egindakoa kritikatzeari, baina normalean kritikatzeko duten horiek ezer gutxi egin izan dute herrigintzan. Talde irekiak izan ohi dira, edonork parte hartzeko aukera duena, eta bere iritzia eman dezake ekimenak aurrera ateratzeko, baina normalean aurpegi berdintsuek egiten dute topo talde gehienetan.

Eta ze erraza den beti besteek egiten dutenean, baina ze polita izango zen, beti berdinek dena egin ez dezaten, gainontzekoek ere zerbait egingo bagenu: herriaren alde, kulturaren alde, gure hizkuntzaren alde, gure haurren alde...

Guztioi gustatzen zaigu gure herrian ekintza ezberdinak egotea, baina askotan etxeko sofatik mugitu gabe, herrian ekarpen gutxi edo bat ere egin gabe. Eta gero, parkean edo lagunartean hasten dira marmarrak, "herri honetan ez dago ezer!", baina aukera dugunean dauden ekimenak aurrera ateratzeko ere ez gara animatzen, adibidez, ikasturte osoan pelikula bat jartzera kultur etxean. Gure umeentzat sekulako plana izan da pasa den neguan igandero lagunekin pelikula bat ikustera joateko aukera izatea. Denok gure aletxoa jarrita ez du asko eskatzen eta haurrentzat plan bikaina izan da *Epelían* egitasmoa.

Besterik gabe, lerro hauek aprobeixatu nahiko nituzke gehienbat herriko guraso gazteak (eta zaharrak, kar kar) animatzeko gure haurrentzat antolatzen diren ekimen, festa eta bestelakoetan parte har dezaten. Antolatzen laguntzera, denon artean errazagoa baita, eta denon artean lortuko baitugu gure ohiturak, gure festak ez galtzea, mantentzea, berritzea, eguneratzea... Izan ere, tradizioak ere eguneratu behar dira, bizirik mantenduko badira garai berrietara egokitu behar baitira.

aritz cestona

naiara expósito alberdi

ZESTOAN

uste baino gehiago

Janaridendak

 **ELORZA**
janaridenda
943 147 660

ARRAINDEGIA
KONTXI
ZESTOA 943 148 247
AZPEITIA 943 811 946

miantxa
943 147 015



unide
egunero janariak
943 558 005

UZKUDUN
harategia
Erdikalea, 5
Tel. 943 147 023
ZESTOA

Teknologia, liburu, paper denda

943 147 110

mairi
LOTERIA
ESTANKOA


LOTXOLO
Tel. 943 147 133

Zbitt
Tif. 943 148 010

Etixerako osagarriak

ONK
943 147 081-647 683 643

UGARTE
burdindegia s.l.
943 147 154

Arropa eta oinetakoak

IRAOLA
ZAPATEGIA
617 269 408


lili 943 148 061

Edertasuna eta ongizatea

beatriz izeta
943 148 322

karmele
943 147 832

KERALA
ongizate txokoa
679 885 173


S
ESTILISTAK
680 802 777

 **ZESTOA**
ZURETZAT

M28: ALKATEGAIK HAUTESKUNDEEI BEGIRA

MAIATZAREN 28KO ZESTOAKO UDAL HAUTESKUNDEETAKO BI INDAR POLITTIKO NAGUSIETAKO ALKATEGAIEKIN BILDU DA DANBOLIN: MIKEL ARREGI (EH BILDU) ETA GARIKOITZ MENDIZABAL (EAJ). EZIN IZAN DUGU ELKARRIZKETA BI HAUTAGAIK ELKARTUTA EGIN, ETA BAKOITZAK BERE ALDETIK AZALDU DIZKIGU DATOZEN LAU URTEETARAKO DITUZTEN ASMO ETA PROPOSAMENAK.

NOLA LABURTUKO ZENUKE AMAITZEAR DEN LEGEGINTZALDIA?

MIKEL ARREGI: Aldaketa batzuk egin ditugu: gobernua irekitzea, elkarlana... Egunerokotasunetik harago, herriko eragileekin hainbat proiektu jarri dira martxan era irekian. Pandemia aipatu gabe, dena baldintzatu digu-eta. Datorren legegintzaldian hasitako lana bukatzeko irrikaz nago. Pena daukat badakidalako Danbolinek mahai ganean jarri duela alkategaien eztabaida herritarrekin batera egiteko aukera, baina EAJko hautagaiak ez du nahi izan. Aukera ona zen elkarrekin era natural batean hitz egiteko. Kritika zilegi da, baina arrazoiak azaldu egin behar dira, bestela irainean gelditzen dira eta sinesgarritasuna galtzen dute.

ETXEBIZITZAREKIN ARAZO LARRIA DUGU HERRIAN. ZENBAIT AUZOTAN EZ DIRA ETXE BERRIAK EGITEN. ARROABEAN BAI, BAINA BADAKIGU KOSTALDEAK NOLA ERAGITEN DUEN. HERRIGUNEAN, BERRIZ, ETXE HUTS ASKO DAUDE BAINA ALOKATZEKO AUKERARIK IA EZ. PREZIO OSO ALTUAK. URRATSIK EMANGO AL DUZUE EGOERA ALDATZEKO?

M: Promozio publikoaren aldeko apustua egingo dugu. Jabetza pribatuaren kultura daukagu, baina horrek etxebizitza eskubidea ez du bermatzen; alderantziz, negozio gisa planteatzea dakar ondorio. Guk planteatzen duguna da Correoseko eremuan, 10 etxebizitza egitea, eta Kaleokerrean 12. Guztira 60 metro karratuko 22 etxebizitza publiko txiki egingo genituzke, alokairu sistema leun batekin bertako gazteek euren bizi-proiektua bertan egiteko aukera izan dezaten. Badakigu Kaleokerra zein egoeratan dagoen. Udalak jabeekin bilerak egin ditu eta aurreakordio batera iristear gaude. Legegintzaldi honetan eremua eskuratu nahiko genuke. [Eusko Jaurilaritzako] Etxebizitza Sailarekin aztertu dugu, baina oraindik ez daukagu hitzarmenik. Dena den, akordio batera iritsiko ez bagina ere, azterketa bat egin dugu eta Udalak bere kabuz egin beharrekoa dela uste dugu. Etxebizitza hutsak ere asko daude. Hor dagoen arazoa da lege bat badagoela, baina eragina izan dezan gauza asko bete behar direla, eta Udalak duen ahalmena oso murrizta da. Astiaraneko etxeengatik [Iehen Guztiok Bat] eskatzen diren diru kopuruak gure iritziz ikaragarriak dira eta ez dugu diru publikoarekin espekulatuko.

GARIKOITZ MENDIZABAL: Legegintzaldi batean ezin izaten da dena egin, baina alkateak horrela justifikatzea ez zait serioa iruditzen. Legealdi erdian esan zuen Covid-aren eragina zela-eta hau trantsizio legealdia izango zela, eta orain beste bi urte pasa direnean, esan du trantsizio legealdia izan dela belaunaldi berriak prestatzeko. Lau urtek ematen dute. Egin behar dena da prestatutako programa landu, garatu eta herriari erakutsi.

G: Arazoa larria da, ez hemen bakarrik. Zestoa bere orografiatik ez da erraza leku askotan etxe gehiago egitea. Badaude estaziotik gora etxe zuri batzuk bukatu gabe. Horiei irtenbidea eman behar zaie. Dirua inbertitu beharko da, baina hor badago aukera bat, alokairu sozialerako edo beste modu bateko etxeak egiteko. Correoseko eraikina ere beste eremu bat da. Etxe hutsei dagokionean, eskua sartzearen aldekoa naiz. Gazteek eduki behar dute aukera lasaitasun pixka batekin etxebizitza bat alokatu edo erosteko. Arroabean badakigu kostaldetik jendea datorrela eta horrekin ezin gara lasai egon. Auzoetan gelditu nahi dutenentzat, terrenoak baldintzaten du. Baserri handiak bereizteko nahiko borondatetsu dago legea eta marjinak badaude etxebizitza bat baino gehiago egiteko.



KULTUR AZPIEGITURA EGOKI BATEN BEHARRAREN INGURUAN ARITU ZARETE BEHIN ETA BERRIZ. ZEIN DA ZUEN PROPOSAMEN ZEHATZA? ETA BIDE HORRETAN AZTERKETARIK EGIN AL DUZUE?

M: 1994an egindako kultur etxea daukagu. Gauza batzuk eguneratu egin behar dira. Antzoki moduan egia da mugatua dela, baina hori eraitsi eta berria egitearen kostua gure gain hartzea baino askozaz ere bidezkoagoa da birmoldatzea. Azterlana 2023ko aurrekontuetan sartuta daukagu, eta gure helburua da egungo antzokiaren edukiera era duin batean handitzea. Gaur egun 80 lagunentzako lekua dago eta eszenatoki atzeko komunak eta abarrak kendu, sarrerako hall-ari espazioa hartu eta jasotzen diren harmailak jarrita, 120-140 lagunentzako edukiera lortuko genuke. Horrek Zestoak dituen hainbat arazo konpon ditzake. Interbentzioa aprobetxatu beharko litzateke eragile guztiekin hitz eginda beste egokitzapen batzuk ere egiteko. Ondoa taberna dago eta eragileekin hausnartu nahiko genuke baita ere etorkizunera begira Udaletik haragoko balizko kultur musika jarduera izango lukeen egitura batez. Zestoa ez dago kultur antzokien sarean eta ondorioz dirulaguntzak lortzea ez da erraza izango. Arroabea ere ez dugu ahaztu nahi. Egiten ari diren etxebizitzekin 600 biztanleko auzoa izango da laster. Jendeak bertan bizitzea egitea nahi badugu erabilera anitza izango duen espazio bat beharko da. Eskola berria egin zenean Joxe Migelen plazan hutsik gelditu ziren eraikinak eraitzita, uste dugu hor gune bat balegokeela horretarako.



G: Gai honek haserretu egiten nau. Urte asko pasa dira ezer egin gabe. Ez zait iruditzen ez justua, ez sinesgarria 2018an orain alkate denak, orduan oposizioan zegoela, kiroldegia egiteko eztabaida batean, udal batzarrean esan izana hirigintzako batzordeburuari Zestoak beste lehentasun batzuk bazituela, esate baterako, kultur azpiegitura egokiak izatea. EH Bildu kritikoa izan zen. Orain alkate da. Berrito ere egin da galdeketa eragilean artean, aurreko legegintzaldian ere egin zen. Erantzuna eztabaiaezina da, zenbat talde daude lanean modu desegokian...

Gure apustua lehengo berdina da. Kultur Etxea zaharkitua eta txikia gelditu da eta ez die herriko beharrei erantzuten. Gure asmoa da eraikina bota eta Axun Arrazola plaza ere hartuta, eraikin berri bat osatzea. Horretarako udaletxeak zorpetu egin behar du, eta Jaurlaritza eta Aldunditik dirulaguntzak lortu. Aparkaleku publikoa ere egingo genuke, oso kostu gutxikoa arratsaldeko 18:30etatik 20:30etara egoten den arazoari erantzuna emango liokeena. Bi pisu atera beharko lirateke, noski. Hor dauden garajeak 100 urterako daude esleituta, beraien kontratuak dituzte. Obrek irauten duten bitartean beste aukera bat eman beharko zaie herriko beste puntu batean.

Arkitekto bat baino gehiagorekin kontsultak egin ditugu dagoen espazioarekin zer egin daitekeen jakiteko, eta buruan duguna %100 egingarria da. Hori egin egingo dugu gobernatzea tokatzen bazaigu, kultur taldeek behar dutelako.

Zenbat eserlekuko antzokia? Ez dugu behar 700 eserlekukoa, ze hori beteko da txistulari alardean eta Benito Lertxundi etortzen denean, eta horretarako ondo eginda gauzak kiroldegian egin genitzake. Ez dena posible da edozein kontzertu udaletxe azpian egitea, batzuk eserita, besteak tente, hotza... Nik nahi dut herri bat konformatzen ez dena, eta horretan konformatzen ari gara.

Izan liteke 200 edo 250 eserlekukoa. Herrian egiten diren ekitaldien %80ari erantzungo diona; dantza ikuskizunak, musika emanaldiak, hitzaldiak, ikus-entzunezko proiektioak....

Eta gero antzerki mundua dago. Ez da bakarrik emanaldiaren momentua, herri honetan gidaritza oso inplikatuak eta profesionalak dauzkagu. Talde hauen funtzionamendua inplikaturik dauden eragileekin adostuko da.



“Datorren
LEGEGINTZALDIAN
HASITAKO LANA
BUKATZEKO IRRIKAZ
NAGO”



GARIKOIGZ MENDIZABAL
 "GARBI DAUKAT GAI
 BATZUK POLIKIKATIK
 APARTE UTZI BEHAR
 DITUGULA"

GAZTE ASANBLADAKO KIDEEK ZENTROA HARTU ZUTEN DUELA BI HILABETE. MOMENTUZ HOR JARRAITZEN DUTE. ZEIN JARRERA IZANGO DUZUE GAI HONEKIKO?

M: Gure programan leku hori planteatu genuen jarduera sozio-kulturaletarako eta gaztetxea hor egiteko aukeraz ere hitz egin izan da. Garbi dagoena da gaztetxe bateko jarduera asko egin daitezkeela eraikin horretan. Ordu txikitako kontzertuek arazoak sortzen dituzte, eta gaur egungo zaraten legea hor dago. Jarduera horiek Elizondon egin ahal izateko sekulako inbertsioa egin behar da eta guri teknikarien aldetik esan zaigu ez litzatekeela bideragarria izango. Egia da orain gaztetxea kokatuta dagoen leku horretan ere inguruko herritarrei arazo horiek sortzen zaizkiela. Beste aukera batzuk badaude, baina gure ustez jarduera guzti horiek osotasunean egin ahal izateko logikoena da Gaztetxea pixka bat herrigunetik ateratzea, beste hainbat herritan egin den moduan; geltokian gune bat dago, Zestoa eta Bainuetxe artean badaude hutsik dauden eraikin batzuk, nahiz pribatuak izan...



G: Gai honek hasiera batean ez gintuen gu harrapatu. Gazte Asanblada eta EH Bilduren arteko liskar gisa ezagutu genuen. Baina gero Gazte Asanbladarekin bildu ginen batzokian. Entzun genien eta gure iritzia eman genien: adierazi genien guk ez genuela hor ikusten gaztetxea inondik inora, beste irtenbide batzuk baloratu izan ditugula historikoki eta gaur egun ere bai. Galdetu genien ea prest zeuden beste eragile kultural batzuekin batera eraikina partekatzeko eta erantzungo zitzaigula esan ziguten. Beste herri askotan ere zentro neuralgikotik aparte daude gaztetxeak. Beraien espazio propioa eduki nahi badute eta beraien dinamikak egin, nik txalotzen ditut, baina niretzat leku hori ez da aproposa. Proposamen egokia estazioko eraikina iruditzen zaigu. ETSrekin [Eusko Trenbide Sarea] hitz egiteko prest gaude. Fundizio elkarteak erabiltzen duen eraikina ere dagoen bezala dago, eta gabezia berdinarekin ikusten ditut. Kontuak kontu, Kultur Etxearen gaia agendan jartzea lortu dute gazteek. Lau aldiz galdetu dugu udal batzarretan nola doan gaia, "bola handitzen" ari zela... Elizarekin elkartzea lortu zen eta tasazioak eta alokairu kontuez hitz egitea. Baina gazteek hanka sartu zuten okupazioarekin eta dena eten dute. Gero bilera batera deitu ninduten, eskatzeko ea bikarioarekin bilduko nintzen eta egin nuen, baina Elizak garbi esan du ez duela pausurik emango gauzak egin diren bezala egin direlako. Gazteei eskaini behar zaie erabilera publikoa duen leku bat, duintasun guztiarekin, gazteak behar duten guztiarekin, baina ez espazio propioa beraiek nahi duten tokian.





MIKEL ARREGI "KRITIKA
ZILEGI DA, BAINA
ARRAZOIAK AZALDU EGIN
BEHAR DIRA, BESTELA
IRINEAN GELDITZEN
DIRA ETA
SINESGARRITASUNA
GALTZEN DUTE"

DATORREN LEGEGINTZALDIKO GAI GARRANTZITSUA IZANGO DA TRANTSIZIO ENERGETIKOA. ALDE BATETIK EGUZKI PLAKAK JARTZEAREN PROIEKTUAK DITUGU, ETA BESTETIK, PIASPE. ZERTAN DATZA ENERGIA BERRIZTAGARRIEN PROIEKTUAK? ZE IRITZI DU ZUEN TALDEAK PIASPE PROIEKTUAREN INGURUAN?

M: Legealdi honetan Goienerrekin gauza batzuk egin dira eta emaitza hor daukagu: komunitate energetikoa. Oso ariketa positiboa izan da. Berriztagarrien inguruan eraikin publikoen azterketak eginda daude, Kiroldegiko aterpeko obra ere hastear dago. Harago jotzeko eraikin pribatu komunitario guztietako azterketa egin eta herri guztiko teilatuek zer ahalmen fotovoltaiko duten aztertu nahi dugu. Zestoako etxeko kontsumoa 4,2 kW/h orduko da. Gure helburua da teilatueta jarritako eguzki plakekin horren erdira iristea. Piaspe proiektua ere hor dago. Hasieran hartutako jarreran gaude. Datorkigunarekin, eskala txikiko azpiegituz gain, handikoak ere beharko ditugula uste dugu gure ongizateari eutsi nahi baldin badiogu, eta hor ere hausnarketa handia dugu egiteko. Baina inolako planifikaziorik eta azterketa orokorrik gabe, gure mendietan 200 metroko aerosorgailuak jartzen hastea ez zaigu zuzena iruditzen. Inpaktua sekulakoa delako. Eskala txikia lehenetsi behar dugu intentsitate handiko azpiegituzetara jo aurretik. Aurrena azterketa orokor bat egin behar dugu eta gero ezinbestekoa zer den ikusi eta erabaki. Oraindik ez gaude fase horretan.



G: Sortu den energia komunitatearekin bat egiten dugu gure zalantzak ditugun arren. Guk Osinbeltzen eguzki-plaken instalazioa egitea proposatzen dugu arazo horri erantzuna emateko eta azterketa bat egiten ari gara. Laster jasoko dugu erantzuna eta emaitzak ez badira egokiak onartuko dugu. Osinbeltzek mailakatutako altueratan eguzki-plakak jartzeko aukera ona eskaintzen du. Jarri gara harremanetan EVE [Energiaren Euskal Erakundea] eta Jaurilaritzarekin. Osinbeltz barranean aisialdi gunea, erdian auditorio handia, antzerkiak, makro-jaialdiak eta rock kontzertuak egiteko, eta inguruan egun-pasarako guneak. Goian eguzki-plakak. Azalera handia duenez, proiektu bakar batean bi gauza lortuko dira; batetik, eraikin publikoak berriztagarri osatzea, eta bestetik, herriko komunitateari aukera eskaintzea. Ez gaude Piaspe proiektuaren aurka, baina ez gaude edozer gauza egiteko prest. Estrategikotzat jotzen dugu, baina proiektua iristen denean jakingo dugu zer, nondik eta nola doan. Ingurumena zaindu egin behar da, egiten diren kalteak konpondu beharko dira, agian hobekuntzaren bat lortu liteke bideren batean. Kontzeptu aldetik ezin gara kontra egon, ez da politikoki jende ekologistak espero duen erantzuna, baina energia asko behar dugu. Ezin gara ibili EH Bildu dabilen bezala, azpeitiarregandik desmarkatu, gero komunikabideetan bat egin berriz, Sañu Bizirik taldekoak harrিতa, makillatu eta bidea garbitu... Legebiltzarrean EH Bildu alde dago. Gu ere alde gaude, baina esandakoa, edozein prezioan ez.

GERO ETA GIZARTE ZAHARRAGOA DAUKAGU, BAINA HERRI MAILAN HORI LANTZEN ARI DIREN ERAKUNDE ETA TALDE AKTIBOAK DITUGU. ZEIN IZANGO DIRA HURRENGO PAUSUAK?

M: Legealdi hasieran etorkizunera begira azterketa eta plan estrategikoa egin genituen hainbat herritar eta eragilerekin. Zestoan 1970ean batatz besteko adina 28 urtekoa zen eta gaur egun 49koa da. 70 urtetik gorako 167 herritar bakarrik bizi dira. Horietako batzuk baliabide gutxi dituzte, eta hurbileko senideen laguntza jaso ezin dutenen zaintza sistema komunitarioa martxan jarri nahi du Udalak. Adinekoen Mahaia ere sortuta, eta lankidetzak ona dago. Anbulatorioko mediku eta erizainak ere inplikatu dira. Aldundiak Gipuzkoako sei proiektu hobereenen artean kokatu du. Gainera, herri txikiena gu gara. Legealdi honetan egin den gauza on bat izan da, gure adinekoen bizi baldintzak hobetzera doana. Hori bultzatu egin behar da.

Kanpo aholkularitza ere badugu esku artean. 2024ko otsailean proiektu honen diseinua amaitua geldituko da eta zaintza sistema propioa edukiko dugu. Argi dugu gure herriko adinekoak ondoena bertatik zainduko ditugula.

HAUR ETA GAZTETXOEN ARTEAN EUSKARAREN ERABILERAN BEHERAKADA NABARIA DA, ETA HORREK KEZKA SORTU DU. GAI HONI NOLA HELTZEKO ASMOA DUZUE?

M: Kezka handia zegoen, teknologia berriak tarteko... Eremu euskaldunenetako batean bizi gara, baina hala ere belaunaldi berrietan denbora gutxian sekulako aldaketa nabaritu dugu. Horrek diagnostiko bat eskatzen du eta hori egiteaz aparte badaude eremu klabe batzuk, hezkuntza sistema dela, kaleko bizitza dela, etxeetako bizitza dela, gure hizkuntza ohiturak... Herri honek ere baditu hainbat kulturatatik hartu ditugun familiak. Kultura guztien arteko azterketa egin behar da. Askotan joera da kanpotik datozei errua botatzea, eta hori ez da batere justua eta ez da erreal. Horrek eragina dauka, baina hemen faktore asko daude. Kanpotik datozei euskara gure herrian integrazteko balio inportante eta aberatsa dela erakutsi behar diegu. Eztabaida politikoa ere sortzen da. Konplexu gehiegi ditugu. Gure hizkuntza lehenetsi behar dugu. Herri euskalduna gara, arnagunea gara eta izaten jarraitu behar dugu. Zestoan gure hizkuntzak atzera egiten badu esango didazue gurea baino erdaldunagoak diren herrietan zer egingo duen. Ez dut imajinatu nahi hemendik 50 urtera; ezagutza bermatuko da, baina erabilera bermatzen ez bada hizkuntzarenak egin du. Arazo larria daukagu zeren hizkuntzaren atzean kultura dago, pentsatzeko era dago.

G: Zorionekoak gara pertsona batzuk daudelako boluntario moduan eta beste batzuk bere lanbidea dutelako egoitzetan... elkartu direlako bakoitzak detektatu dituzten edo lanean eroso aurkitzen diren gune horiek betetzeko. Batuta eta oso ondo ari dira. Gure jarrera zein izango den? Ba guztiz despolitizatu eta gidaritza, indarra eta balio guztia San Juan egoitzaren bitartez sortu den ekosistemari ematea. Ondoan egon, adi, behar dutenerako. Garbi daukat gai batzuk politikatik aparte utzi behar ditugula.

G: Pedagogia eginez baina aitortuta eskuetatik joateko oso erraza den eremua dela. Zestoan zorionez, hala ere, oso giro euskalduna dugu, baina –seme gazteagatik batik bat igartzen dut– gailuak eskuan dituztenean zein hizkuntza kontsumitzen duten badakigu, eta hor euskarak ez dauka zer eginik. Tik Tok eta horrelakoetan erreferente euskaldunak behar ditugu. Gailuak euskaraz konfiguratu, hitzaldiak, eskolan lagundu eta batez ere etxean adi egon eta euskara zaindu etxetik. Udaletxetik hartu ditzakegun neurriak hartuko dira. Errealitate bat da, sektorizatuta dago. Etortzen diren etorkinei ere arreta soziala ematen zaie, dirulaguntzetan eta... baina gure kulturara ekartzeko erronka ez da erraza eta hori ez bada egiten euskarak ez dauka lekurik.

ibsaso waliño
jone bergara



“EZIN IZATEN DA DENA
EGIN, BAINA ALKATEAK
HORRELA JUSTIFIKATzea
EZ ZAIT SERIOA
IRUDITZEN”



ARATZ UNANUE IRAETARRAK BIGARREN POSTUA ESKURATU ZUEN IX. GURUTZEAGA TXIRRINDULARI SARIAN

XI. Gurutzeaga saria jokatu zen apirilaren 30ean. Kadete mailako 180 txirrindularik hartu zuten parte lasterketan. Jon Cardona irundarrak eskuratu zuen lehen postua. Aratz Unanue iraeitarra izan zen bigarren, eta Danel Beristain zumaiarra, hirugarren. Irati Arangurenak aurreneko postua eskuratu zuen nesketan, eta taldeen sailkapenean Irundarra taldearentzat izan zen saria.



XII. GAZTETXOEN BANAKAKO PILOTA TXAPELKETA

Abantzu pilota klubak eta eskola kirolak elkarlanean antolatutako XII. Gaztetxoen Banakako Pilota Txapelketako finalak jokatu ziren maiatzaren 2an.



GAZTETXEAREN XXXIV. URTEMUGA

Apirilak 30 eguerdian hasi ziren Gaztetxearen XXXIV. urtemugako eguneko ekintzak. Bertso-triki poteoa egin zuten tabernetan zehar, Jon Gurrutxaga eta Danel Olano bertsolariekin. Ondoren, paella jana izan zen Zentro aurrean. Arratsaldean jarraitu zuen festak poteo musikatuarekin eta eguna amaitzeko, bertsio gau jendetsua izan zen gaztetxe zaharrean.



SANTAKUTZAK OSPATU DITUZTE ASTEBURUAN IBAÑARRIETAN

Maiatzaren 6an auzo bazkaria egin zuten Ekain sagardotegian, eta igandean egun osoko egitaraua izan zuten auzotarrek: eguerdian meza San Kristobal ermitan, eta ondoren, zapo jokoan aritu ziren. Arratsaldean, berriz, Iago mago azpeitiarrak ikuskizuna eskaini zuen eta gero, herri kirol ikuskizuna izan zen auzoko plazan.

JENDE MORDOXKA PORTALEK ANTOLATUTAKO EKINTZETAN

Eguraldi eskasak ez zituen herritarrak beldurtu eta jende mordoxka gerturatu zen maiatzaren 13ko arratsaldean Portalek arkupetan girotutako artisau azokara. Iluntzean, Zumaiaiko Eire bikotearen kontzertua izan zen. Herritarrak ez zirenak ere bertaratu ziren udaletxe azpira, eta giro polita sortu zen. Egunari amaiera emateko, Portalen bertan aritu zen Dj Elba musika jartzen.



BARRU GIROAN OSPATU DITUZTE SANISIDROAK ARROABEAN

Giroa ere horretarako zegoen eta barru aldetik ospatu dituzte aurten sanisidroak Arroabean. Arratsaldean zehar musa eta txokolate beroa izan ziren. Haurrek buruhaundiekin jolastu zuten eta iluntzean afaria izan zen Ederki elkartearen.

Igande goizean III. Udaberriko argazki rallya izan zen. hamaika lagunek hartu zuten parte bertan. Astelehenean, berriz, Txararen bigarren urteurrena ospatzeko, inguruko ekoizle batzuekin solasaldia eta mokadutxoa izan ziren.





Zestoako Udala



Gizateriak berak bermatu beharko luke eskubideak izateko eskubidea eta gizabanako bakoitzak gizateriaren kide izateko duen eskubidea. (Hannah Arendt, *Totalitarismoaren jatorriak*, 1951)

usteak erdia ustel



Zestoan bizi diren herritar askok ez du boto eskubiderik.

Maiatzaren 28an ezingo dute, hortaz, hauteslerik aukeratu.

Bozkatzeko eta hautatua izateko eskubidea, herriaren borondatean oinarritzen diren gobernu demokratikoen muiaren parte al da?



'Etorrkinek eskubide guztiak dituzte, eta betebeharririk ez'

Sentitu, pentsatu, hausnartu eta, ondoren, hitz egin

adinekoen txokoa

'Nagore, emango zenidake hitzordua?'

Asteartea da eta Nagore Olazabalek badu norbait zain hankak erreparatzeko. Prestatzen den bitartean, galdera batzuk egin dizkiogu.

Zenbat urte daramatzazu Zestoan podologo bezala lan egiten astean behin?

Hogeita bi urte pasa. Ikasketak bukatu eta berehala hasi nintzen.

Zein da zure lanetik gehien gustatzen zaizuna?

Zestoan jubilatua bakarrik hartzen ditut. Gehienak 75 urtetik gorakoak dira.

Herrian bertan, aukera hau izatea, benetan oso ondo etortzen zaie. Denak ezagunak ditut eta elkarrekiko hurbiltasun handia sentitzen dugu. Benetan, oso atsegina izaten da. Hanketako lanak egin bitartean, solasaldi interesgarriak edukitzen ditugu.

Auzoetatik ere etortzen zaizkizu?

Bai. Arroabekoak izan ezik, Zestoa erdi gunekoak eta beste auzo guztietakoak.

Zeintzuk etortzen dira gehien, emakumeak ala gizonak?

Hamarretik zortzi, emakumeak dira. Gizonezkoen kasuan, azkazalak moztu, gastatu eta txukuntzea izaten da gehien egiten dudana (eurak iristen ez direlako). Askori lotsa ematen die, baina behin konfiantza hartzen dutenean lasai etortzen dira. Emakumeak aldiz, ohiko txukuntzetaz gain beste arazo batzuek izaten dituzte. Gehienetan kailuak.

Irakurleentzat, aholkurik bai?

Gizonezkoek orokorrean esango nieke, azkazalak moztea konplikatzen hasten denean, ez daitezela etxeko inor presionatzen aritu eta etortzeko lasai.

Emakumeei berriz, zapatak behar diren zabalerakoak erabiltzea eta ez estuak eta taila handiagokoak.



Pentsionistak Martxan taldea

23/24 ikasturteko aurrematrikula

æk
euskara praktikoa

			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28				

28
EKAINA

%5_{eko}
deskontua

Egin
aurrematrikula



EUSKARA-IKASTAROAK

ABANTAILAK:

Ikasturte honetako **prezioari eutsi**, eta gainera, **% 5eko deskontua**
Ordainketa malguagoa
Lehentasuna

Ekainaren 28ra arte, www.aek.eus
webgunean edo AEKren edozein euskaltegitan.

www.aek.eus

ORRISTIA



Bai, normalean beti joaten naiz eta aurten ere joango naiz. Botoa eman beharra dago.

sonia vega
44 urte



Ez dut botoa emango. Urte batzuk badira botoa ematen ez dudala, apolitikoa naiz.

maider
gorrotxategi
45 urte



Bai, beharrezkoa dela iruditzen zait.


manu izeta
51 urte



Bai, beti ematen dut. Ez dut inoiz hutsik egiten.

joxe mari
arregi
68 urte

DATOZEN HAUTESKUNDEETAN BOTOA EMANGO AL DUZU?




Bai
Ez
Ez dakit

(Erantzuleak guztira: 104)



San Joan pasealeku inguruan ez dago argirik farola artean.



Lasaoko frontoiko argiak LED sistemara aldatu dira.



Ureztaketa & Lorezaintza

PRESTATU ZURE LORATEGIA UDARARAKO



Zure ureztaketa sistema instalatzeko material guztia gure jardenean aurkituko duzu! Instalazioa egiteko laguntza behar duzu? Jarri gurekin kontaktuan konpromisorik gabe.



Urrestilla bidea, Azpeitia
943 15 00 85 | www.kimubat.eus

maiatza

19 OSTIRALA

19:00etan erremonte jaialdia.
* 19:00 EAJren mitina Laranjadin, Joseba Agirretxea, Garikoitz Mendizabal eta Euge Arrizabalagarekin.

22 ASTELEHENA

Furgobaratza Iraetan: tomateen tailerra.

23 ASTEGARTEA

Kontaidazu ipuin bat, liburutegian.

24 ASTEAZKENA

Ikaslekuaren azken saioa Gaztelekuan.

26 OSTIRALA

Odol ateraketak

28 IGANDEA

Xoxotera mendi irteera.

Asentzioak endoian

18 OSTEGUNA

20:00 Meza. Ondoren auzo afaria eta erromeria Ane eta Maialen trikitilariekin.

19 OSTIRALA

19:00 auzo poteoa. 20:30 bertso afaria Aitor Sarriegi eta Unai Agirre bertsolariekin. Erromeria Ane eta Maialen trikitilariekin.

20 LARUNBATA

14:00 bazkaria. 17:00 Itziarko Andutz dantza taldea. Ume jolasak eta goxokiak. 23:00 Erromeria Ansorregi eta Larrañagarekin. Goizaldera Karroza.

21 IGANDEA

11:00 meza. Pintxo dastaketa. 12:00 Emakume harrijasotzaileen erakusketa Manex eta Erkizia trikitilariekin. 14:00 auzo bazkaria. 17:30 Herri kirolak.

PAZKO FESTA AIZARNAN

27 LARUNBATA

11:00etan artisau postuak plazan. 11:30ean haurrentzako ekintzak eta herriko dantzariak trikitilariekin. 14:30ean txekorra eta sargardoa txotxetik trikitilariekin. 18:00 Bardo konpainiaren ikuskizuna. Egun guztian zehar erakusketa Aranburuko zelaian. Gaia: aterkia. Baserritarrez janzteko deia egiten da.

ekaina

01 OSTEGUNA

Ertxiña Musika Eskolako ikarturte amaierako emanaldia 18:30ean udaletxe azpian.* Argiolako bilera 18:00etan Alonderon.

03 LARUNBATA

Mendizaletasuna eskola kirolean.

03-04 ASTEBURUA

Arroila jaitsiera Agirok antolatuta.

14 ASTEAZKENA

Odol emaileen eguna.

15 OSTEGUNA

"Traganera bidaia" Urola trenari buruzko proiektzioa eta hizketaldia, Sabino Legarda-Ereño eta Ignacio Galdonaren eskutik. 19:00 Kultur etxean.

17 LARUNBATA

XXI. ibilaldi neurtua. Zestoa - Zestoa bi ibilbide: Itzuli txikia 19km eta luzea 28km.

* Itzaropena dantza taldearen ikasturte amaierako emanaldia 19:00etan, Laranjadin.

* Arroabeko txirrindulari froga.

22 OSTEGUNA

AEK-k antolatuta, TI-TA bakarriketak. Maria Blanco eta Ana Goitiarekin 18:30ean Kultur Etxean.

23 OSTIRALA

22:00 San Joan sua (lekua zehazteke).

* **ERTXIÑA MUSIKA ESKOLAN**

MATRIKULATZEKO aukera izango da maiatzaren 22tik ekainaren 9a bitartean.

* **ZESTOAKO FUTBOL ESKOLARAKO IZEN**

EMATEA ZABALIK. Irailean hasiko den denboraldi berrirako izena eman dezakete 2012-2015 urteak bitartean (bi urteak barne) jaiotako neska mutilek. Izena emateko Xabier Ostolaza (646 41 64 84) eta Jexux Mari Arakistain "Txixu" (615751372).

* **AEK-N MATRIKULAZIOA**

ZABALIK ekainaren 28ra arte. Informazio gehiago aek.eus atarian.



**Fisioterapia
Osteopatia**

— 943 29 08 99 —

Toribio Altzaga 20 - 22 20740 Zestoa

Surya Paz Marticorena

Osteopatia - Kirol masajea

☎ 605 765 140 📍 Portale kalea 1, Behea B · 20740 ZESTOA (Gipuzkoa)

Gesalaga kalea 20
Zestoa 20740



mizuclicadental@gmail.com
ZURINE ECHEBERRIA RENOBLES COLEG. 797
IDIOIA ECHEBERRIA RENOBLES COLEG. 868

Tel.: 943 14 78 28



ZESTOAKO SAN JUAN FUNDAZIOA
1919-2019

Bidezarra, 5 20740 Zestoa 943 147 019
e-posta: zestoakosanjuan@gmail.com
www.zestoakosanjuan.blogspot.com

Taxi Zestoa

♿ 9 Eserleku

Eneko 603 394 729 Joseba 670 431 906

GISASOLA
EGOITZA - RESIDENCIA
Toribio Altzaga 6 - Zestoa
943 897 077 / 688 842 848 residenciagisasola.com



Botika - Laborategia
ZURUTUZA

Gesalaga kalea 8, Zestoa tel./fax 943 147 006
WhatsApp: 661590009 farmazu@farmanorte.org



Gestoria Zubia

M^a Jesus Zubia Olaizola
Portale kalea 7, behea - 20740 ZESTOA
Tel./FAX: 943 897 070



**LINTERNERIA
SANTA CLARA**

Tel. 943 851 868
e-posta: lintsantaclara@hotmail.com

Zestoa
KULTURAREN HABIA



danborrada23

Maite dugun herria

ehbildu

2023ko UDAL HAUTESKUNDEETARAKO HAUTAGAIK



**MIKEL
ARREGI URRUTIA**

**LOREA
ILUNDAIN PERURENA**

**ZIGOR
PLAZAOLA ANDUAGA**

**BEATRIZ
ZUBIA ARANBARRI**

**AITOR
OSSA RISSANEN**



**IÑAKI
ODRIOZOLA
LARRAÑAGA**

**JONE
EXPOSITO ALBERDI**

**NEREA
GOIKOETXEA
AIZPURUA**

**BEÑAT
ARAKISTAIN
LARRAMENDI**

**MAIALEN
ETXEBERRIA KORTA**



**AMANE
ARRUE AIZPURU**

**AITOR
SALEGI MARTIJA**

**MARIJO
AZKUE SEGUROLA**

**GARBIÑE
ARAMENDI LANDA**

**RUBEN
ALBERDI URANGA**

ZESTOA
Abante!



@EHBILDUZESTOA



GARIKOITZ MENDIZABAL ETXEBERRIA

Zestoako alkatezarako hautagaia



EIDER MENDOZA LARRAÑAGA

Gipuzkoako diputatu nagusirako hautagaia

Aurrera, batera!
Zestoa



ej
pnv